

**2009KO UZTAILAREN 7AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Zazpia

**HILABETEA:** Uztaila

**URTEA:** Bi mila eta bederatz

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko hamaikak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Fernando Boada González  
Jon Kortaberria Lasa  
Begoña Lasa Royuela  
Julio Herreros Serna

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2009ko ekainaren 26eko aktaren berri eman ondoren, Fernando Boada jaunak adierazi du, Eskaera eta Galderen atalean, EMPRESA BERRITZAILEEN ZENTROAN gaiari buruz, bere interbentzioa jaso zela adieraziz proiektuarekin ados egon arren ez zeudela ados Olarango eraikina izatea proiektu hori gauzatzeko lekua, baina nahi duela garbi gelditzea, GOIEKIk dela gai hori eramaten duena eta Udala horretan ez litzatekeela sartu behar.

Alkateak esan dio, hori horrela dela, Olarango eraikina erabiltzeak ez duela esan nahi gai hori Udalaren esku gelditzen denik, baizik eta GOIEKIrri dagokiola.

Beste guztiek adostasuna azaldu dute, aktarekiko.

Beraz, argibide horiekin akta aho batez onartu da.

**2.- OBRAK ESLEITZEA.** Gernika Pasealekuan aisialdiko gune bat lonarekin estaltzeko zimendatze eta estruktura obrak esleitzea.

Ezagutzera eman da, 2009ko uztailaren 6ko kontratazio-mahaiaren proposamena:

“Gobernu Batzordeak 2009ko ekainaren 10ean, ”**Gernika Pasealekuan aisialdiko gune bat lonarekin estaltzeko zimendatze eta estruktura**” obrak

prozedura irekia eta premiazko izapidetzearen bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza plegua onartuz.

Lizitazio prezioa: 276.531,95 €, BEZ kanpo.  
Epea: 12 aste

Lehiaketaren deialdia, 2009ko ekainaren 16an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean ondorengo enpresak aurkeztu ziren:

LIZITATZAILEAK / LICITADORES
ARKAITZA
OTEGI ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ
EKOLAN
MANUEL ECHAIDE, S.L.
ORIAKO, S.L.
IASO, S.A.

Aurkeztutako eskaintzak azertu ondoren, lortutako balorazioa jarraian adierazten da, kontutan izanda emandako txosten teknikoaren arabera:

OFERTANTES	PUNTUACION						Total E.Obra	
	Estudio Obra							
CONTRATISTA	Diagrama GANT (5P)	Medios humanos y maquinaria (5P)	Propuesta Itinerarios (5p)	Recorrido camiones y acopios (5P)	Organigrama personal (15P)	Memoria descriptiva (25 P)		
IASO SA	5	4	2	2	15	25	53	
CNES ARKAITZA.	3	3	4	2	1	20	33	
OTEGI ERAIKUNTZAK SL.	0	3	0	0	12	12	27	
CNES ITURRIOZ	3	4	3	2	14	25	51	
CNES ORIAKO SL	0	3	0	0	12	12	27	
EKOLAN OBRAS Y SERVICIOS.	-	2,00	3,00	4,00	3,00	0,00	20,00	-
MANUEL ECHAIDE SL	0	3	0	0	13	12	28	

Eskaintza ekonomiko kartazalak ireki ondoren, lizitatuzaileek atal honetan lortutako puntuazioa hau izan da:

OBRA ACONDICIONAMIENTO PARA CUBRIR ESPACIO DE OCIO										
CONTRATISTA	OFERTANTES							PUNTAJON		
	OFERTAS				Baja Media	Limites Baja	Baja Oferta	Valoración Econom.		
	Ejecución Contrata	IVA	Total oferta	Plazo				Dif. con la Media	% respecto media	Total V.Econ.
IASO SA	273.748,47	43.799,76	317.548,23	12 SEMANAS	5,26	0 - 20,26	1,01%	13.634,60	4,49%	33,948
CNES ARKAITZA.	229.944,32	36.791,09	266.735,41	8 SEMANAS			16,85%	37.178,21	12,23%	14,581
OTEGI ERAIKUNTZAK SL.	254.066,06	40.650,57	294.716,63	3 MESES			8,12%	9.197,00	3,03%	37,599
CNES ITURRIOZ	270.269,84	43.243,17	313.513,01	11 SEMANAS			2,26%	9.599,39	3,16%	37,268
CNES ORIAKO SL	276.531,94	44.245,11	320.777,05	12 SEMANAS			0,00%	16.863,42	5,55%	31,292
EKOLAN OBRAS Y SERVICIOS.	281.072,64	44.074,62	326.044,23	8 SEMANAS			-1,64%	-	-	-
MANUEL ECHAIDE SL	267.406,40	42.785,02	310.191,42	10 SEMANAS			3,30%	6.277,80	2,07%	40
<b>MEDIA PROPUESTAS</b>			<b>303.913,63</b>							

EKOLAN OBRAS Y SERVICIOS enpresa lizitazioetik kanpo gelditu da, lizitazio prezioa gaildu delako. Beraz, ez da baloratzen.

Lizitazioan parte hartu duten enpresek lortutako puntuazioa honako hau da:

OBRA ACONDICIONAMIENTO PARA CUBRIR ESPACIO DE OCIO			
LICITACION		OFERTANTES	PUNTO
Importe	Plazo (semanas)	CONTRATISTA	TOTAL
320.777,06	12 SEMANAS	IASO SA	86,95
		CNES ARKAITZA.	47,58
		OTEGI ERAIKUNTZAK SL.	64,60
		CNES ITURRIOZ	<b>88,27</b>
		CNES ORIAKO SL	58,29
		EKOLAN OBRAS Y SERVICIOS.	
		MANUEL ECHAIDE SL	68,00

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaia egitaritze organoari, hau da, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** "Gernika Pasealekuan aisialdiko gune bat Ionarekin estaltzeko zimendatze eta estruktura" CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A. esleitzea, baldintza plegu eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera, **HIRUREHUN ETA HAMAHIRU MILA EURO ETA BOSTEHUN ETA HAMAHIRU ZENTIMO (313.513,01 €)Ko prezioan, BEZ barne.** Egikaritze epea hamika astekoa izango da, zuinketa akta egiten den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Zuinketa akta, kontratu administratiboa sinatzen denetik zazpi eguneko epean egingo da.

**Bigarren.** Esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean, 13.513,50 €ko behin betiko fidantza aurkeztuko da."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## **5.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

### **ENPLEGU SUSTAPENA**

Alkateak enplegu sustapena dela eta ezagutzera eman du kontratu behar diren pertsonak, batzuk lanaldi osorako eta beste batzuk lanaldi murriztuarekin:

- Estatuko enplegu-sustapenaren bidez, 8 pertsona, hau da: Auzolanean lana egiten duten 5 pertsona (4 + monitorea), 2 pertsona kultura arlorako (liburutegirako eta dinamiztaile bat), pertsona bat gizarte-ongizaterako (dinamizatzailea).
- Foru Aldundiak enplegu-sustapenerako egin duen deialdia dela eta: 4 pertsona, hau da, gazteria teknikaria, bigarren mailako igeltseroa, hirigintzan lana egiteko, jarduera ekonomiko erregistroaren inguruan eta enpresa berritzaileen zentroa eramateko beste pertsona bat.

Jarraian esan du, 2009ko irailaren 15erako enplegu-sustapena martxan egon behar dela. Batzuk irailean hasiko dira eta beste batzuk berriz, geroago.

**OMENALDIA**

Ekainaren 26ko Udalbatzan eskatutakoari jarraituz, Alkateak proposatzen du, Josetxo Zufiaurre jaunari omenaldi bat egitea eta horretarako udazken kulturala garatzen denean egun aproposak direla esan du, orduan liburu baten aurkezpena egin behar duelako.

Bildutakoek aho batez onartu dute proposamena.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko hamaikak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.